



ARAN HERBARIOA ETA DATU BASEA

Mari Azpiroz, Lorena Uriarte, Yoana Garcia, Joseba Garmendia, Anaïs Mitxelena, Leire Oreja eta Maialen Arrieta

Botanika Saila. Aranzadi Zientzia Elkartea. Zorroagagaina 11. 20014 Donostia. botanika@aranzadi.eus

TESTU INGURUA:

ARAN Herbarioak eta Datu Baseak Euskal Herriko eta bere inguruko florari buruzko informazioa gordetzen du pleguen eta ziten bidez. Herbarioa, 1980an sortu zuen Aranzadi Zientzia Elkarteko Botanika Sailak eta Datu Basea, urte batzuk beranduago, 2006an. Bien artean 80.000 landareen plegu baino gehiago, 200.000 zitatik gora eta 3.000 liburuen erreferentzia baino gehiago gordetzen dituzte.

Bilduma hau Euskal Herriko landare bilduma handienetarikoen artean aurkitzen da. Bere helburua arlo honetako datuak kontserbatzea eta sortutako informazio guzti hori ikerketa zein dibulgaziorako eskuragarri izatea da. Informazio honi esker ikertzaile talde ezberdinek ikerketa taxonomikoak, ekologikoak, espezieen banaketari buruzkoak zein ikerketa genetikoak aurrera eramaten dituzte. Horretarako, ARAN Herbarioa AHIM-ren (*Asociación de Herbarios Ibero-Macaronésicos*) parte da eta ARAN Datu Baseko datuak GBIF-era (*Global Biodiversity Information Facility*) bolkatzen dira.

HELBURUAK:

- Landareak herborizatze prozesuan laguntzea: mendian laginak hartzea, identifikatzea eta herborizatzea.
- Landare bildumaren mantentze-lanak gertutik ezagutzea: pleguen mantentze lanak, beste herbario batzuekin elkartrukeak, datuak informatizatzea, landare pleguen digitalizatzea etab.
- Florari buruzko Datu Baseen kudeaketari buruz ikastea: datu berriak bolkatzea eta erroreak zuzentzen ikastea.
- Herbario eta Datu Basearen gizarteratzeari buruz ikastea.



ESKAITZEN DENA:

Praktikak

ZEINI ZUZENDUA:

Biologia edo Natur Zientzietan goi mailako ikasketak dituenari edo landare bildumen eta datu baseen kudeaketan interesa duenari.

Botanikako oinarrizko jakintzak lagungarriak izango dira.

IRAUPENA:

2016eko otsaila eta martxoa (jarraipena izateko aukera).

NON:

- Lanerako bulegoa eta Herbarioa Aranzadi Zientzia Elkarteko egoitzan aurkitzen dira, Donostian.
- **Mendiko lana:** batik bat Euskal Herria eta zenbaitetan inguruko lurraldeak (Aragoa, Kantabria, Soria...).